

DERMO

Hizotzgailu eramangarria

Funtsezko baliabideak

Proiektu baten arrakasta, neurri handi batean, hasierako finantzaketa egoki bat edukitzearen eta baliabideak modu eraginkorrean kudeatzearen araberakoa da. Horregatik, **atal honetan proiektuaren lehen faseetan beharrezkoak izango diren finantzaketa-iturriak eta baliabide teknikoen garatzen dira.**

Proiektuaren lehenengo **finantzaketa-iturrietako** bat **Ekin Araba lehiaketan parte hartzearen bidez lortzea** aurreikusten da. Lehiaketa horretatik eskuratutako **diru-laguntza** funtsezkoa izango da proiektuaren lehen fasean, izan ere, jasotako finantzaketarekin hozkailu eramangarriaren lehen prototipo funtzionala garatuko da. **Prototipo honek produktuaren bideragarritasun teknikoa eta erabilgarritasuna baliozkotzeko balioko du.**



Behin **hasierako finantzaketa** lortuta eta **prototipoa** sortuta, hurrengo urratsa **ingeniari espezializatu** baten kontratazioa izango da. Ingeniari horren ardura izango da produktuaren **diseinu teknikoa zehaztea**, hozte-sistemaren **mekanismoa garatzea** eta gailuaren eraginkortasuna, segurtasuna eta ergonomia bermatzea. Fase honetan, **produktuaren diseinu industrial**a eta azken erabiltzailearentzako **egokitasuna optimizatuko** dira.



Azkenik, diseinua guztiz garatua eta balioztatua dagoenean, **ekoizpen industrialera** igaroko da proiektua. Horretarako, **fabrikazio-enpresa espezializatu** batekin lankidetzaz ezarriko da, hozkailu eramangarria eskala handian ekoizteko. Eredu honek **produkzio-kostuak murriztea, kalitate-estandar altuak mantentzea** eta **merkatuan eskaera handiei erantzuteko gaitasuna izatea** ahalbidetuko du.

Horrezegatik, **hasierako finantzaketa egoki bati esker**, proiektua fasez fase garatzeko aukera izango da, lehen prototipoaren sorreratik hasi eta ekoizpen industrialera iritsi arte.

